

ETXEGABETZEAK SAIHESTEKO JARDUERA-PROTOKOLOA

SORALUZeko UDALA

1.- ZIOEN AZALPENA

Gaur egun bizi dugun krisi ekonomiko egoeran, pertsonak eta familiak zorpetzearen sekulako handitzea jasaten ari dira, langabezia-tasa handien eta egungo egoera ekonomikotik ondorioztatutako beste arrazoi batzuen eraginez diru-sarrerak murriztu izanagatik, funtsean. Aurreko honen ondorioz, neurri handian murriztu da pertsonak ohiko etxebizitza erosteko gauzatutako hipoteka-maileguen kuoten ordainketari aurre egiteko duten gaitasun ekonomikoa; izan ere, gero eta maizago kuota horiek ordaintzeari uzten diote, etxegabetzea dakarren prozesua eraginez. Ohiko etxebizitza derrigor uztea ez da prozesu osoaren azken ondorio negatiboa: etxebizitza duinaren gabezia gain, sarri askotan etxebizitzaren balioa hipoteka-zorra baino txikiagoa da, eta zorduna ez da libre geratzen etxebizitza ematearekin. Izan ere, hipoteka betearazi eta etxebizitza galdu ondoren, ordaindu ez den zorraren zatiak indarrean dirau. Horrek guztiak gizarte-bazterkeriako egoerak sorraraz ditzake.

Bai Euskadiko Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legean, bai eta, duela zenbait hamarkadatik, 1948ko abenduaren 10eko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean (25.1 artikulua), 1966ko abenduaren 16ko Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Nazioarteko Itunean (11.1 artikulua) eta Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak 2000ko abenduaren 7an onartutako Europar Batasunaren Oinarriko Eskubideen Gutunean (34.3 artikulua), guztietan, etxebizitzaren garrantzi soziala azpimarratzen da eta pertsonen eta haien familien bizi-baldintzak hobetzearekin eta gizarte-bazterketa saihestu eta gainditzeko posibilitatearekin lotzen da. Nazioarteko xedapen horiei lotuta, 1978ko Konstituzioak aurrerapen handia ekarri zuen, esplizituki aitortzen baitu, 47. artikuluan, herritar guztiek daukatela eskubidea etxebizitza duin eta egokia izateko, eta botere publiko guztiei exijitu eta agintzen die beharrezko baldintzak susta eta arau egokiak ezar ditzatela eskubide hori benetan gauza dadin.

Etxebizitza izateko eskubidea nahitaezkoa da gizakiarentzat, funtsezko beste eskubide batzuk baldintzatzen baititu; adibidez, enplegua izatekoa, botoa ematekoa, prestazio eta zerbitzu publikoak jasotzekoa, seme-alabak eskolaratzekoa, kulturaz eta ingurumen egokiaz gozatzekoa, bizipenak senideekin eta lagunekin partekatzekoa, eta beste hainbat ere, itzal handieneko doktrinak eta justizia-auzitegiek behin eta berriz nabarmendu dutenez. Etxebizitza izateko eskubideak eta eskubide hori benetan gauzatzeak bizitza duin bat eramatea errazten eta ahalbidetzen diote gizakiari.

Etxebizitzaren arloko udal eskumenari dagokionez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak honako hau ezarri du 25.2 artikulua d) letran: "Udalerriak, beti, [...] gai hauetako eskumenak beteko ditu: [...] etxebizitzak sustatu eta kudeatzea [...]". Etxegabetuentzat ondoriozta daitezkeen gizarte-bazterkeriaren ondorioei dagokienez, Sorluzeko Udalarri gizarte zerbitzuen, gizarte-sustapeneko zerbitzuen eta gizarteratzeko zerbitzuen arloko eskumenak gauzatzea ere badagokio, 7/1985 Legearen 25.2

artikuluaren k) letran eta, oro har, Eusko Legebiltzarraren Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean ezarritakoaren arabera.

2.- HELBURUA

Helburu nagusia gainzorpetzeagatik ohiko etxebizitza mantentzea arriskuan jartzen dion kaudimen-gabezia agertzen duen pertsona edo familiari, eta beraz, gizarte-bazterketa egoeran izateko arriskuan dagoenari, osoko konponbideak ematea da. Prozesu orotan etxebizitza irtenbide bat bilatzeko ahalegina egingo da, izan erakundearekin negoziatuta familia etxebizitzan gera dadin, izan etxebizitza publiko bat gizarte-alokairuaren erregimenean kudeatuta, erabilgarritasunaren arabera. Hala badagokio, gainera, erraztuko da diru-laguntza ekonomikoak tramitatzea eta ematea.

Jarduera protokolo hau bat-bateko egoera ekonomiko baten ondorioz ohiko etxebizitzaren etxegabetze kasuak daudenean ezarriko da, beti ere etxebizitza hori eraginpeko pertsonak jabetzan duen higiezin bakarria baldin bada.

Protokoloa ez da ezarriko ageriko gehiegikeria ekonomiko edo zabarkeria ekonomiko kasuetan. Kasu honetan, pertsona hauek Udal Gizarte Zerbitzuetara bideratuko dira.

Soraluzeko Udalak atea zabalik dauzka ohiko etxebizitzatik kaleratuak izan diren edo etxegabetzeko arriskua duten pertsona guztientzako. Udalarentzako funtsezkoa da honen eragina jasan duen pertsonarengandik informazioa jasotzea, horrela neurriak hartu ahal izango baititu.

3.- JARDUERA PROZEDURA ETXEGABETZE KASUETAN

Prozedura osoan zehar Datuak Babesteko Legea zehatz-mehatz bete beharko da. Arau hau betetzeko, posible da eraginpeko pertsonaren edo familiaren baimena eskatu behar izatea. Pertsonak edo familiak EZ balu baimenik emango, bertan behera geratuko da protokoloa, adinez txikiak dauden kasuetan izan ezik. Horrelakoetan, egoeraren berri emango zaie Gizarte Zerbitzuei, sail honetatik adingabeen eskubideak bermatzeko bidezko irizitako jarduerak burutu daitezten.

Udalak kasuaren berri izatea

1.- Edozein sailetik, Gizarte Zerbitzuetara bideratuko dira protokolo honetako prestazioetan interesa duten pertsonak, sail hau baita zerbitzu hau eskaintzearen arduraduna.

2.- Udaltzaingotik "epailearen botatze agindu" bat jasotzen da etxegabetzean laguntzeko eskatuz. Baliteke pertsona edo familia ohiko etxebizitzatik kaleratze egoeran izatea.

- Botatze Agindua jaso ostean, Udaltzaingoa harremanetan jarriko da eraginpeko pertsonekin edo familiekin, Soraluzeko Udalak hauen datu pertsonalak erabiltzeko ahalmena izan dezan. Horretarako, eraginpeko pertsonen datu pertsonalak erabiltzeko baimena ematen duen agiri bat sinatu beharko dute eta, hori eginda, protokolo honetan aurreikusitako udal agente desberdinek esku-hartu ahal izango dute.

- Baimentzen duen agiria sinatuz gero, honen berri emango zaie Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei zein protokoloa koordinatzeko arduradunari.
- Pertsona edo familia etxegabetuak baimena eman ezean, Udaltzaingoak horren akta egin eta espedienteari erantsiko dio, izapide gehiagorik egin barik.

3.- Gizarte Zerbitzuak badaki persona/familia bat hipotekaren betearazpenagatik ohiko etxebizitzatik kaleratze egoeran dagoela.

Arreta pertsonalizatua, informazioa eta balorazioa

4.- Gizarte laguntzaile bat esleitzea kasuz informatzeko eta balorazioa egiteko.

5.- Gizarte laguntzaileak persona/familia ohiko etxebizitzatik kaleratua izateko egoeran dagoela ondorioztatu ostean, jarduera protokoloa abiatzea.

Jarduera protokoloa

1.- Kasua Alkatetzari eta Osasun, Gizarte Ongizate eta Immigrazioaren batzordeari jakinaraztea.

2.- Alkatetzatik eraginpeko persona/familia hartzea.

3.- Balizko etxegabetze kasu baten eraginpeko persona/familiari aholkularitza juridikoa eskaintzea, bere ohiko etxebizitza dauden bitarteko juridiko guztiekin babesteko asmoz.

4.- Finantza-erakundea premiazko batzar batera deitzea. Batzar honetan Alkatea, Gizarte Ongizateko zinegotzia eta oposizioan dauden talde politiko bakoitzeko zinegotzi bana izango dira. Eta helburua izango da bitartekaritza egitea finantza-erakundeak etxegabetze prozedura berriz aztertu dezan, etxegabetzea eteteko edo/eta alokairu soziala jartzeko.

5.- Pertsonak edo familia esleituta duen gizarte laguntzaileak, dagokion balorazioa eta diagnostikoa egin ostean, egoerari aurre egiteko eskuragarri dauden zerbitzuei eta laguntza/prestazioei buruz orientatuko du.

PROZEDURA

Balizko etxegabetze egoeran dauden pertsoneri harrera egitea

ARDURADUNAK	JARDUERAK: HARRERA EGITEA (H)	LOTURA DUTEN EUSKARRIAK
Gizarte Zerbitzuak	1.- Bat-bateko egoera ekonomiko bategatik ohiko etxebizitzaren balizko etxegabetze egoeran dagoen pertsonari harrera egitea.	
Udaltzaingoa	2.- Botatzeko laguntza eskaera jasotzea Epaitegitik. a) Epaitegitik jakinarazpena jaso eta berehala, eraginpeko pertsonekin edo familiekin harremanetan jarriko dira jardun ahal izateko behar den baimena jasotzeko asmoz. b) Gizarte Zerbitzuei jakinaraztea, eraginpeko pertsonak edo familiek horretarako baimena ematen badute. c) Botatzea atzeratzeari buruzko idatzia emango die etxegabetutako pertsoneri edo familiei, urtarrilaren 7ko 1/2000 Prozedura Zibilaren Legearen 704. artikuluari jarraiki, berau Epaitegian aurkeztu eta etxebizitzaren etxegabetzea hilabete atzeratzea eskatzeko asmoz. Etxegabetutako pertsonak edo familiak luzapen eskaera aurkeztea onartu zein ez onartu, Udaltzaingoa Gizarte Zerbitzuen esku-hartzea eskainiko dio. d) Laguntza botatzerakoan, epaileak berariazko agindua emanez gero. - Udaltzainek Udal Gizarte Zerbitzuen eskuhartzea eskainiko diote etxegabetutako pertsona edo familiari egoera hauetan aurreikusitako zerbitzu eta prestazioetaz informatzeko eta hauek eskaintzeko. - Etxegabetutako pertsonak edo familiak eskaintzari uko eginez gero, Udaltzaingoa horren akta egin eta espedienteari erantsiko dio, izapide gehiagorik egin barik. - Etxegabetutako pertsonak edo familiak eskaintza onartuz gero, Udaltzaingoa horren akta egingo du eta, presaz, koordinatzaile gisa izendatua izan denari zein Udal Gizarte	Epaitegiaren ofizio-papera

	Zerbitzuei jakinarazi egingo die. Hauek, Udaltzaingoak jakinarazpena eman osteko biharamunean zenbatzen hasiko den bi egun balioduneko epean, etxegabetutako pertsonarekin edo familiarekin elkarrizketa bat izango dute. Elkarrizketa honetan protokolo honetan ageri diren eta eskuragarri dituzten zerbitzu eta baliabide publikoen gaineko informazioa emateaz gain, hauek eskuratzeko behar diren jarduerak eta kudeaketak egingo dituzte, betiere etxegabetutako pertsonak baldintzak bete eta formalki eskatuz gero.	
--	---	--

Jardunak balizko etxegabetze egoera baten aurrean

ARDURADUNAK	JARDUERAK: DIAGNOSTIKOA (D)	LOTURA DUTEN EUSKARRIAK
Gizarte Langilea	<p>1.- Etxegabetze egoeran dagoenari telefono deia, etxegabetze-egoera hartu ostean.</p> <p>2.- Elkarrizketa.</p> <p>3.- Gizarte-fitxa irekitzea, gizarte zerbitzuetara lehenengoz joanez gero.</p> <p>4.- Egoeraren diagnostikoa eta balorazioa.</p>	<p>Gizarte-fitxa</p> <p>Balorazio eta diagnostiko txostena</p>
Alkatea edo Osoko Bilkuran izendatutako pertsona	<p>5.- Balorazio eta diagnostiko txostenaren arabera, pertsonak adostasuna emanda eta baldintzak betetzen badira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Botatzea etetea eskatzea. - Botatzea atzeratzea eskatzea, posible den gehienezko epea, hilabete 1, eta berau Epaitegian aurkeztea. 	<p>Azaroaren 15eko 27/2012 Errege Dekretu Legea</p> <p>PZLren 704 eredua (Prozedura Zibileko Legearen 704 artikulua)</p>
Gizarte Langilea	<p>6.- Balorazio eta diagnostiko txostenaren arabera, pertsonak edo familiak adostasuna emanda eta indarrean dagoen araudiari jarraiki, legezko prestazio ekonomikoak eskatzea (GLL, DBL, DBE, Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria...); Eusko Jaurlaritzak dituen programetan etxebizitza alokairuan lehentasunez eskuratzeko eskaera egitea; edota udal etxebizitza bat, egonez gero, eskuratzeko eta han ostatu hartzeko aukera izatea;</p>	

	<p>etab.</p> <p>7.- Beharrezkoa iritziz gero, Osasun Publiko zerbitzura bideratzea, estres egoeran daudenek arreta psikologikoa izan dezaten.</p>	
<p>Alkatea edo Osoko Bilkuran izendatutako pertsona</p>	<p>8.- Balorazio eta diagnostiko txostenaren arabera, eta pertsonak edo familiak adostasuna emanda, finantza-erakundearekin bitartekaritza lana egitea, konponbide ahalik eta zuzenena lortzen ahalegintzeko: etxegabetze prozedura etetea, alokairu soziala...</p> <p>9.- Eraginpeko pertsona edo familiari harrera egitea, Udalbatzaren jarrera zein den erakusteko.</p> <p>10.- Informazioa Bozeramaleen Batzordeari helaraztea.</p>	

Erabakiak eta jarduera publikoak

ARDURADUNAK	JARDUERA PUBLIKOAK	LOTURA DUTEN EUSKARRIAK
<p>Alkatea</p>	<p>11.- Etxegabetze egoerak errefusatzeko ekintzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Talde politikoei deialdia egitea eta finantza-erakundearen jarduteko eraren inguruan jarrera hartzea. - Botatze aginduaren egun berean Plaza Barrixan kontzentrazio batera deitzea. - Finantza-erakundeekin dauden ekonomia-, erakunde- eta lankidetzaharremanak berrikusteari buruzko proposamena eramatea Osoko Bilkurara. 	